

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Argibideak eskatu ditu Arragueta kalera ematen duten fatxadak eta teilatu-erretenak konpontzeko laguntzarik dagoen jakin nahian.</p>	<p>Arragueta kaleko eraikinek fatxadak konpontzeko udalak ematen dituen diru-laguntzak jaso ditzakete (aurrekontuaren % 10a, edo m2 bakoitzeko 4 euro).</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Matxarigaineko telefono-hedagailua dela-eta, kexak jaso dira.</p>	<p>Matxarigaineko telefono-hedagailu hori Plan Orokorrean dago jasota telefono mugikorrendako estazio legez; udalaren politika, horrelako azpiegituren erabilera partekatua sustatzearen aldekoa da. Plan Orokorrak, partzela hori "SO-IS-00 Zerbitzu azpiegitura" Sistema Orokortzat sailkatzen du. Azkenengo antena (Xfera Móviles-ek jarritakoa, 2011ko maiatzaren 11ko lizentzia duena) martxan jarri baino lehen Industria Ministerioaren ikuskapena jaso zuen, bera baita arlo horretan eskumena duena. Antena horrek bete egiten ditu ezarritako esposizio-mugak. Gipuzkoako Telekomunikazioen Ikuskaritzako Zuzendaritza Probintzialak du ekipoen ikuskaritza egiteko ardura.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Txomoko garajeak: ostean geratzen diren garajeetara Bidebarrietatik sartzeko aukerarik egongo litzatekeen galdetu dute.</p>	<p>Hirigintzaren ikuspegitik zortasuna ezarrita dago eta udalak pasabide hori egokitzeko agindua eman zion Txomoko garajeen ustiatzaileari. Obrak egin ziren (pasoko atea mandoarekin) baina ez zen alde bien artean akordio batera heldu ibilgailuak pasatzeko gastuen banaketaren gainean.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Asfaltoa egoera txarrean dagoela Errekagain kaleko aparkalekuan.</p>	<p>Urte honetan egingo da.</p>	<p>Obrak.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Bidebarrieta kaleko lorategiak: kexak sartu dituzte: zikinak daudela eta putzuak egiten direla esan dute. Birmoldatzea eskatu dute. Baina bestalde, auzoko beste bizilagun batzuk diote ez daudela ados lorategiak aldatze horrekin, eta gutxiago oraindik lorategien aldea zolatzearekin.</p>	<p>Lorategiak eraberritzeko balorazioa egin da, auzoko bizilagunei aurkeztuko zaiena euren iritzia jaso eta soluzio adostu bat bilatu asmoz.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Jardiñeta kaleko 29, 31, 33 eta 35. etxeetarako irisgarritasuna hobetzea eskatu da.</p>	<p>Inguru haren irisgarritasuna hobetzeko hainbat aukera aztertzen ari dira.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Abiadura murriztailea jartzeko eskaera egin da Jardiñeta kaleko 28. zenbakiaren ondoan (Garrido tabernaren kurban).</p>	<p>Jarri zen abiadura murriztailea.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Kexatu egin dira Jardiñeta kalearen zati bat baino ez delako asfaltatu (Institutu aldea).</p>	<p>Ez da uste inguru hartako asfaltatua egoera txarrean dagoenik.</p>	<p>Obrak.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>San Juan kaletik Jardinetak kalerainoko igogailuaz galdetu du.</p>	<p>Igogailu hau lotuta dago trenbidearen desdoblamenduarekin eta trenbidea estaltzearekin.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Sakunetik Arrateko bidera dauden sarbideak hobetzea eskatu dute, asfaltoa oso txarto dagoela-eta kexatu egin dira.</p>	<p>Alde hura bisitatu da eta ez da uste egoera txarrean dagoenik.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Laspiurreko zamalanen aldeari zatia kendu eta aparkalekuak jartzeko aukerarik dagoen galdetu dute.</p>	<p>Eskaria aztertuta eta kontuan hartuta inguruetan dendak daudela eta Plazia ere handik gertu dagoela zamalanak egiteko ordutegia aldatu egingo da, 8:00etan hasi eta 12:00etan amaituko dela</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Errebaleko parkingaren irteeran lehentasuna nork duen galdetu dute.</p>	<p>Aparkaleku baten irteeran –garajea edo parkinga izan berdin dio- lehentasuna beti oinezkoena da, baina lekua nolakoa den ikusita, batzuetan gerta liteke auto bat oinezkoen pasabidearen erdian geratu behar izatea eta oinezkoei espaloitik ibiltzen ez uztea.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Salatu dute asteburuetan botiloia egiten dela Muzategiko parkean 1etik 9ra. Udaltzaingoak zaindu arren, elkartzen segitzen dute.</p>	<p>Auzokoei eskaera hau egin zaie: gazteak ikusten dituztenean Udaltzaingoari dei diezaiotela. Asteburuetan, udaltzainek inguru hartan patruilatzen segituko dute.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Jardiñeta kalera dauden oinezkoen sarbideak hobetzeko aukera.</p>	<p>Kalea norabide biko den bitartean ez dago espaloi bat egiteko aukerarik.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Oinezkoen pasabide bat eskatu dute Jardiñeta kaletik lbargaineko 2. zenbakira.</p>	<p>Ezin da oinezkoen pasabide bat egin diagonalean.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexak kioskoan txarto aparkatutako ibilgailuengatik.</p>	<p>Alde hura kontrolatu eta leku hartan aparkatzen duten ibilgailuak salatu dira.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Kexatu egin dira Jardíñeta kaleko aparkalekuak beste kale batzuetakoek eta kanpoko jendeak erabiltzen dituztela eta.</p>	<p>Aparkalekuak ez daude gordeta bakarrik inguru hartan bizi direnendako.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Jardiñetako iturriaren lerro horian ibilgailuak aparkatuta egoten direla salatu dute.</p>	<p>Leku horretan aparkatzen duten auto guztiak ari dira salatzen.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexak sartu dituzte zirkulazio-norabide bikoitza dagoelako Jardíñeta kaleko 1-3 zenbakietako garajeetatik kale hartako 12-14 zenbakietaraino. Alde estu bat da eta ez dira ibilgailu bi gurutzatzen.</p>	<p>Bere sasoiari inkesta bat egin zen auzoan eta auzoko bizilagunak izan ziren bide hori norabide bikoia izatea erabaki zutenak.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexak daude Muzategi kaleko 1etik 9ra bitartean dagoen parkean futboleko jolasten dutela-eta.</p>	<p>Leku horretan patruilatzen segituko du udaltzaingoa. Horrez gain, hauxe eskatu zaie: gazteak –nagusitxoak- horretan dabiltzala ikusterakoan, abisatzeko, patruila bat bertara joan dadin, gazteak identifikatu eta baloiak erretiratzeko.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Sakun aldea hobetzea eta konpontzea eskatu dute, bere garaian inausi zena. Bidea txukuntzea eta harako sarbidea ixtea eskatu dute. Euria egiten duenean aparkalekuetara ur asko sartzen da.</p>	<p>Sakun aldean egin zen lana berezia edo apartekoa izan zen, baina justifikatua, osasun publikorako arriskua zegoelako, lursail partikularra baita. Gaur egun ez dago inongo arriskurik, beraz, ez dagokio udalari bide hori konpontzea.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Sakuneko zakarrontziak etxebizitzetatik gertuago jartzea eskatu dute; baita aparkalekuetarako bidean ere.</p>	<p>Eskaera kontuan hartu da eta lan-agindua egin da aparkalekuan zakarrontzi 2 jartzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Ibargaindik Estaziño kalerako bidea egoera txarrean dago. Asfaltoa hobetzeko aukerarik dagoen galdetu dute.</p>	<p>Lan-agindu bat egin da bide horretan partxeak jartzeko. Hala ere, lan hori joan zen udan egin zela aipatu behar da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Txomoko garajeak. Hustubideak sarriago garbitzea eskatu dute ura pilatu ez dadin eta filtratu ez dadin.</p>	<p>Abisua Mankomunitateari bidali zaio, alde hura bisitatu da eta ondorio hau atera: ez dagoela hustubiderik tratatuta, han dagoen putzuaren arazoa, etxe-blokearen eta garaje-erakinaren artean dagoen asentu-diferentzia horretatik datorrelako. Putzu horrena konpontzeko zoladura guztia jaso eta aldapak edo maldak berregin behar dira. Urte honen amaieran adjudikatuko dira beheko parkea berriro urbanizatzeko obrak, 2015. urtean egiten hasiko direnak. Urte edo jardunaldi horretan egingo da baita goiko parkearen hobekuntza.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Arragueta zeharrean argiteria eta garbiketa hobetzea eskatu dute.</p>	<p>Argiteria, kanpoko argiteriaren instalazioetarako eraginkortasun energetikoaren erregelamenduak markatzen dituen muga horien barruan dago. Garbiketari dagokionez, Mankomunitateari idatzi bat bidali zaio inguru hura txukundu dezan.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Lehen Bittor Sarasketa 2ko edukiontzietatik gertu zegoen zakarrontzia falta dela oharteman dute.</p>	<p>Lan-agindua egin da zakarrontzi hori berriro bere lekuan jartzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexatu egin dira, batzuetan, Jardiñetako sarrerako saihebidetaren argiek ez dutelako funtzionatzen .</p>	<p>Foru Aldundiari horren abisua pasatu zitzaion argiak konpon zitzan, bera baita argi horien arduraduna. Itxura denez, aberia hori euren lineetan izan zuten arazo baten ondorio izan zen.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Bidebarrieta kaleko zenbaki bakoitien espaloian dauden arbolak inaustea eskatu dute. Arbola edo zuhaitz horiek altura handia hartu dute eta espaloira ematen duten etxeetako bizilagunei traba egiten diete.</p>	<p>Arbolei adarrak moztu zaizkie.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Muzategiko parkea presiozko makinarekin garbitzea eskatu dute.</p>	<p>Ez da gomendatzen presiozko ur makinarekin garbitzea, plaza azpiko garajeetan arazoak daudelako ur-filtrazioekin.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Muzategiko parkearen hustubideak garbitzea eskatu dute garajeetan urik sar ez dadin.</p>	<p>Alde hura Mankomunitatearekin aztertu da eta ondorio honetara iritsi: parke horren azpiko garajeetako hodiak karez beteta daudela obra bera amaitu baino aurretik ere. Udalak dagokion zatia garbitzen du, gaineko aldea; gainerakoak Egotlan gestoriaren esku daude.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Jardiñeta kaleko 29tik 35era: Mankomunitateak garbiketa indartzea eskatu dute.</p>	<p>Mankomunitateari idatzia bidali zitzaion, inguru hori aztertu da eta ez da zikintasunik ikusi. Edozein modutan ere, jarraipen bat egingo dutela hitz eman dute.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexak, Jardiñetara doazen eskailera mekanikoen funtzionamendua txarra delako.</p>	<p>Zati batzuen kateak aldatu dira, zarata sortzen zelako kateak janda egotetik eta, kateok janda egotera, eskaileren abiadura oso motela izatetik.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Laspiurreko aparkalekuen goiko aldean gaikako bilketako edukiontziak jartzeko eskaera.</p>	<p>Ez da posible eskari honi baietz esatea zaborra biltzen duen kamioia ez dagoelako ezker aldetik kargatzeko prestatuta, edukiontzi guztiak eskumatik kargatzekoak direlako.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexatu egin dira auzoan txakur kakak daudelako.</p>	<p>Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Kexatu egin dira 5. edukiontzian apuntatu ez direnei zabor-tasa % 20a gehiago kobratzeagatik.</p>	<p>Neurri hori hartu bada izan da hiritarrak jabetu nahi direlako birziklatzearen inguruan; eta hori dela eta, faktura handiagoa bidaltzea erabaki da, bereizten edo banatzen ez diren hondakinen tratamendua banatuta daudenena baino askoz handiagoa delako.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Galdetu dute ea zergatik ez den zabaltzen gauetan Institutuko parkinga, eta haren sarbide guztia zergatik pintatu den horiz aparkalekuak kenduta.</p>	<p>Institutuko parkinga pribatua da eta, pribatua denez, bere baldintzak ezartzeko eskubidea du.</p>	<p>Alkatetza.</p>

ERDI-BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA (Coliseo ANTZOKIA, 2013/11/19)

<p>Galdetu dute 5. edukiontzian izena emanda dutenek beti edukiontzi berbera erabili behar duten edo, erosotasunez, une bakoitzean ondoen datorkiena erabiltzerik duten.</p>	<p>Edozein edukiontzi erabil daiteke: txartel txipdunak -giltzaren ordeztarri dena- edozein edukiontzi zabaltzen du.</p>	<p>Alkatetza.</p>
--	--	-------------------